

824–2024

1200 urte Eneko Aritza nafarren errege izendatua izan zenetik!

Efemeride hori urte osoan ospatua izan behar litzateke, ilusioz beterik, gure lurraldetasun osoan zehar. Gauza gutxi, zoritxarrez, baina hemen gaude horretarako.

Guretzat, gertakari hura fundazionala izan zen gure ezaugarri nazionaleri iraupen eta garapen aukerak ziurtatzeko.

Baina zer gertatu zen orduan? Nola joan ziren gauzak? Nor zen Eneko?

ATLAS HISTORIKOAK

Ongi erreparatzen badiezue, atlas historiko guztietan, Erroma erori ondoren askotan “zuriz” agertzen da eremu bat.

Eremu hori ez zaie esleitzen ez frankoei, ez bisigodoei.

“Zuriz” dagoen eremu horrek “aske” dirudi. Baina ez da kontsideratzen monarkia barbaroen parekide.

“Zuriz” agertzen den eremu hori “euskaldunei” esleitzen zaie: euskaldunak, vascones, vascons, basques, ... Izen horiek badaukate ezinbesteko lotura euskara hizkuntzarekin.

Horrela erakusten da “eremu zuriko” jendeak gutxienez ezaugarri linguistiko nazionala, propioa zuela.

Hizkuntza hori, euskara, lotuta zegoen askatasun egoerarekin.

Hau zen 824 aurretik genuen LEHEN LEGITIMITATEA: legitimitate etnogeografikoa. Hemengoak gara.

Askotan galdera erretoriko bat egiten zaigu: “Nondik datoz euskaldunak?”

Erantzun egoki bat izan daiteke: euskaldunak dira Europa mendebaldeko “post-erromatar” bakarrak.

Herri moduan “aguantatu” dute Erromako Inperioa. Erroma erori ondoren, “aske” dira barbaroen irrupzioaren aurrean.

Hau da 824 aurretik genuen BIGARREN LEGITIMITATEA: legitimitate politikoa. Politikoki, gu ez gara barbaroak.

ESTATU BAT? BAI, ESTATU BAT!!

Eta zer harreman dugu barbaroekin?

Gerla defentsiboa. Barbaroen legitimitatea bortizkerian eta konkistan oinarritzen da. Eta euskaldunen aurkako erasoak etengabeak dira.

Barbaroek arrakasta lortzen dute beste barbaroen aurka. Euskaldunen aurka ez.

Nola da posible hori? Zein da “zuriz” dagoen eremu honen antolakuntza?

Ulertu behar da 250 urtez jarraian erresistentzia arrakastatsua lortzeko antolatua izan behar zarela:

Imajinatu behar dira administrazio bat, kargu zibilak, kargu militarrek, kargu erlijiosoak,

instituzioen arteko koordinazioa, senatu edo biltzar moduko gobernu hiritar bat.

Gobernu bat... beraz, estatu bat!

Bai, 824 aurretik, Eneko Aritzaren aurretik, badago jada estatu bat Iruñe inguruan.

PERIFERIAK

Baina denbora berean badaude “marka” moduko beste egitura batzuk, ezagunagoak.

Hau garrantzitsua da: ezagunagoak dira beste botere batek satelizatuak direlako.

Esate baterako, Baskoniako dukerria frankoen orbitan garatzen da. Frankoen periferian kokatua dago.

Matxinatzen ahal da, noski. Eta hala egin zuen askotan. Baina berarentzat independentzia ezinezkoa da.

Halaber gertatzen da banukasitarren eremuarekin (Ebro haranean). Salbu eremu hori Kordobako satelitea dela. Matxinatzeko aukera, bai. Independentizatzea, ezinezkoa.

“Zuriz” dagoen eremua, edo Estatua, bi periferia horien artean garatzen da, “aske”.

HUTSUNE GARRANTZITSU BAT

Aipatutako eremu aske horrek, estatu horrek, aurre egin die frankoei, bisigodoei, musulmanei.

Estatua antolatuta dago eta funtzionatzen du. Baina “zuriz” agertzen da mapetan, “zuriz” agertu behar da atlasetan ...

Zer falta zaio?

Hau da hutsune garrantzitsu bat: estatu horri aginte kargu supremoa falta zaio.

Zergatik falta zaio?

Hau da nire interpretazioa ...

“Post-erromatarrek” diren heinean, euskaldunek mantenduko zuten Bizantzioko enperadorearekin nolabaiteko leialtasun teorikoa. Bizantzio orduko Erroma legitimoa baitzen.

“Post-erromatarrek” diren heinean, Bizantzioko lurralde galdu baten moduan kontsideratuak izan daitezke. Ideia hori indartuko zen neurri batean bizantziarrak Hispaniako hegoaldea berreskuratzen dutelarik.

“Aske” dira euskaldunak, antolatuak dira, baina nonbait kargu supremoa Bizantziori uzten diote. Nori bestela? Adibide bat, ongi ulertzeko: gaur egun Kanada aske da, baina kargu supremoa Karlos erregeak dauka, Ingalaterran ...

ZERGATIK ENEKO?

Orduan, bat-batean, zergatik Eneko? Zer aldatu da?

Europar aldaketa sakon bat gertatu da 800. urtean.

“Mendebaldea” sortu da Karlomagno eta Aita Sainduaren kolpe politiko baten bidez.

“Mendebaldea” bortitza eta konkistatzailea sortu da. “Ekialde” eta “Hegoalde”

globalen kontra sortu da, gaur egun arte.

Efektu kolpe honen aurrean, Bizantzio hitzik gabe geratu da. Eta geroxeago onartuko du. Akabo batasun euro-erromatarra, batasun kristaua, legitimitatea.

Alta, Iruñean gauzak beste modu batez interpretatu dira.

Bizantziok amore eman die barbaroei. Baina guk barbaroa garaitu dugu Orreagan (horixe ospatzen dugu gaur!). Ezta pentsatu ere kolpe hura onartzea.

Iritsi da ordua gure kargu supremo propioa izendatzeko.

Eta, horretarako, Eneko Aritza izendatzen da. Hori izango da mila urteko jokaldi erabakigarria gure estatuarentzat, 824tik XIX. mendea arte. Eta, horrekin batera, izen politikopropioa joango gara inposatzen: *Nafarroa*.

Euskaldun-nafarrek beti argi izan dute beren izaera zein zen. Kontzientzia nazional argia zuten. Legitimitatearen kontzeptuak ere bai. Eta Estatuarena ...

Erromako garaian: ezaugarri nazional propioak zaindu.

Barbaroen garaian: antolatu eta borrokatu, legitimitate hoberena baliatuz.

Aldaketa geopolitikoen aurrean: koherentziaz eta ausardiaz aritu.

Horrela, anekdotarako, Eblo eta Aznar buruzagi inperialak hurbiltzen direlarik Lotario enperadore berriaren izenean (Lotario aurreko urtean koroatua izan zen, Bizantzioko oniritziarekin), Iruñeko erantzuna oso argi geratzen da, berriro ere Orreagan. Erantzun bat “urbi et orbi” (“Urbi” Erromarentzat, Aita Santuarentzat; “Orbi” Bizantziorentzat).

Gure jokaldia ez zaio batere gustatu “Mendebaldeari”, eta, barbaroa den gisan, beti saiatu da gure Estatuari erasotzen.

NOR ZEN ENEKO?

Nor zen Eneko Aritza? Eneko ez da kolpista bat, ez da usurpatzaile bat, ez da tirano bat, ez da jenio bat, ez da heroi bat. Enekorena ez da erregimen aldaketa bat, ez da haustura bat, ez da krisi bat. Dena da garapen logiko eta koherente bat.

Eneko orduko pertsona kualifikatuena da (esperientzia eta pedigree duena) Estatuaren kargu supremoaren esentzia ulertzeko. Senidetua da Baskoniako dukeekin. Baita banukasitarrekin ere. Eta agian, zergatik ez?, orduko Iruñeko apezpikuarekin.

Datu gehiago? Egia esan, gutxi dira ... Baina badakizue ... berez ez bada ezagutzen zehazki noiz jaio zen Karlomagno ... orduan, pentsa Eneko Aritza ...

GAUR

Eta gaur, 1200 urte geroago, aldaketa gutxi. Ofizialki existitzen dira Madrilekin edo Parisekin satelizatuak diren “dukerri” berriak, “dukerri” propioak: EAE (Euskadiko Autonomia Erkidegoa), NFK (Nafarroako Foru Komunitatea), EHE (Euskal Hirigune Elkargoa) ... Ez dira zentroak, ez, inperialisten periferiak baizik.

Matxinatzen ... barkatu, protestatzen ahal dute. Baina independentzia ezinezkoa da haientzat.

Non da independentzia? Gure independentzia, gure estatua, zapalduak dira. Ez dira

desagertu, ez: teknikoki existitzen dira, zapaldu moduan.
Independentzia eta Estatua berreskuratu nahi baditugu,
Ordua da gure “eremu zuri” berria (birtuala, paraleloa) sortzeko eta antolatzeko.
Ordua da Madril eta Parisekiko satelizatietatik ateratzeko. Periferia izateari utzi eta
zentro berriro bihurtu.
Ordua da kanpoan harremanak egiteko, Mendebaldetik kanpoko harremanak.
Ordua da munduarekin hitz egiteko. “Ekialdeak” eta “Hegoaldeak” ez dute ezer gure
kontra.

**824an bezala, badugu LEHEN LEGITIMITATEA: legitimitate etnogeografikoa.
Hemengoak gara.**

**824an bezala, badugu BIGARREN LEGITIMITATEA: legitimitate politikoa.
Estatua daukagu eta ez dugu onartzen “Mendebaldearen zapalkuntza”.**

Eta, prestatzen garelarik, beti izango da aukera beste Eneko Aritza bat aurkitzeko.
Eskerrik asko, eta gora Nafarroa askea!

Oliber Foix Agerre

“Eremu zuria” atlas historikoetan (adibideak)

